

Xabier Queirugarekin solasean

AMAIA APALAUZA OLLO ETA IÑIGO ROQUE EGUZKITZA

Badira sei urte Pasazaite argitaletxea gure letren mundu txikira agertu zela, atzerriko literatura garaikidea «kontrabandoan» pasatu nahian. Ordutik hona, dozena bat liburu plazaratu ditu; 2016an, beste sail bat erantsi zion bilduma nagusiari, «43. ipar paraleloa», Estatu Batuetako literaturari txoko berezi bat egiteko asmoz.

Bi itzultzaile elkartu gara, bada, argitaletxeko editore Xabier Queirugarekin hizketan lasai egiteko. Biok lan eginak gara berarekin, eta gure elkarrizketetan zirriborratutako gogoetak garbira pasatu nahi izan ditugu. Alde batetik, ulertu nahi genuen nondik nora bururatu zitzaion halako argitaletxe bat sortzeko ideia zoragarri-zorua, eta, bestetik, literatura itzuliaren inguruan jardun nahi genuen berarekin: Galiziako egoeraz, hemengoaz, diru-laguntzez, politikez, itzultzaileez eta abarrez.

Bakanetan aurkitzen den zerbait aurkituko du irakurleak Queirugaren berbetan: eskarmentua duenaren begirada bat, baina, aldi berean, begirada garbi bat oraindik ere harritzeko ahala galdu ez duena (bestela, erreparatu zenbat bider erabili duen elkarrizketatuak *harritu* hitza gure solasean).

Nor da Xabi Queiruga?

Hogeita hemezortzi urteko mutil bat, Vilagarcía de Arousakoa. Bilbora ikastera etorri eta azken hamabi urteak Donostian eman dituena. Nire familia guztia gali-ziarra da, eta ez nuen harremanik eduki Euskal Herriarekin hona ikastera etorri nintzen arte.

Editore gisa aurkezten al duzu zeure burua?

Ez, ez, ezta batere. Hori garbi esan nahi dut.

Eta, zertan aritzen zaren galdetzen dizute-nean, zer erantzuten duzu?

Badaukadala beste lan bat. Hau ez dudala ogibide, nahiz hortik atera nahi nukeen

bizimodua. Nik uste, gainera, euskarazko literaturarako inportantea litzatekeela editoreek liburugintzatik atera ahal izatea bizimodua, horrek esan nahi lukeelako liburuak saltzen direla eta irakurri egiten dela. Gaur-gaurkoz, ordea, sei urteren buruan, ezinezkoa zait nire argitaratze-erritmoan. Beraz, badaukat beste lan bat, eta honekin txandakatzen dut.

Nolatan hasi zinen? Izan al zenuen diru-iturri magikorik?

Ez, ez, sos batzuk neuzkan aurreraturik, eta horrekin abiatu nintzen. Orain, urtean-urtean berdintzen ditut gastuak.

Nola hurreratu zinen literaturara?

Literaturara... irakurle modura hurreratu nintzen. Beti izan naiz irakurzalea. Baneukan beste lan bat (eta horretan segitzen dut), baina zerbait egin nahi nuen liburuen inguruan. Beste lan horretan gustura aritzen naiz, baina ez nau askorik asebetetzen, eta, honetan hasteko aukera ikusi nuelarik, kontuak atera nituen ezelako arazorik ez izateko, eta, honetatik bizi nahi nukeenez, bada, aurrera egin nuen eta horretan nago.

Zure abiapuntua orduan...

Bai, bai, irakurzaletasuna, irakurtzearen plazera... besterik ez. Nik Zuzenbidea ikasi nuen. Bi-hiru urtean ibili nuen aukera hau buruan, eta, argitaletxeen munduarekin zerikusirik ez neukanez, Galiziako pare bat editorerekin jarri nintzen harremanetan, haiek ere hutsetik hasitako argitaletxeak baitzeuzkaten, eta galdetu nien ea nondik nora atera zuten aurrera egitasmoa: inprimategia, itzulpenak, eskubideak, banaketak, autonomoak...

Gastuak aipatu dituzu. Pasazaiten, irabazpiderik ez daukan bakarria editorea da.

Bai, gaur egun hala da. Badauzkat irabaziak, baina liburu berrietan inbertitzen dut dena. Orain, urtean bi-hiru liburu ateratzen ditut. Aurreko liburuak ere saltzen dira (ez da bakarrik azkena saltzen), eta hori bentaja da. Salmentak gehituz doaz, nolabait ere, nahiz liburu zaharrak gutxiengo saltzen diren, eta horri esker segitzen dut liburuak ateratzen.

Zergatik Galizian Rinoceronte edo Hugin e Munin bizi daitezke literatura itzulia argitaratetik eta Pasazaite ez?

Haiek badute alde editorea itzultzaile ere badela eta urtean liburu bat edo bi berak itzultzen dituela, eta, hala, diru hori aurrezten dute. Urtean lau liburu ateratzen dituzte, eta Xuntaren laguntzarekin, gainera. Laguntza-sistema aleatorio samarra izaten da, baina diru-laguntza gehiago dituzte hemen baino. Argitaratzen dituzten liburu guztiak, guzti-guztiak, diruz lagunduak dira.

Galizian, orduan, diru-laguntza gehiago dago.

Bai, bai. Nik hasieran begiratu nuen ea zer diru-laguntza eska nezakeen hemen, eta ohartu nintzen ezin nintzela deialdira aurkeztu batez ere eskatutako liburu kopururengatik, tiradarengatik. Nik, inprimatze digitala egiten dudanez, kopuru txikiagoak inprimatzen ditut. Nire ustez, gaur egun argitaletxeen mundua nola dagoen ikusirik, ez dauka zentzu handirik halako baldintzak ezartzeak, mila aleko tiradarik ez baita ia egiten. Online salmenta ere ez dute kontuan hartzen, gainera.

Online asko saltzen al duzu?

Ez. Liburuak atera berritan, halako gorakada bat egoten da, lehenbiziko bi asteetan, sare sozialak direla bitarte.

Diru-laguntzen arlora itzulita, egokia iruditzen al zaizu hemengo politika?

Aspaldi da ez dudala begiratu hemen laguntzak nola diren. Nik uste sistema aldatu behar litzatekeela. Galizian bere garaian eskatu zen bezala, begiratu behar litzateke ea zer garrantzi daukan itzuliko den liburuak, eta ez zer tirada duen, baldin eta itzulpen-gintza sustatu nahi bada.

Badira sei urte Pasazaiten sortu zela, eta badauzkagu hamahiru liburu eta bi bilduma. Nolakoa da balantzea? Ona?

Bai, ni oso pozik nago. Oso pozik, argitale-txeak aurrera segitzen duelako. Nire esperantza litzateke urtean hiru liburu argitaratzea eta, hartara, ez egotea hainbeste azken salmenten mendean. Lasaiago ibiltzeko, besterik ez bada ere.

Aurrera segitzen duzu hamahiru liburuek ondo funtzionatu dutelako, ezta?

Bai, tira, denek ez dute berdin funtzionatu. Batzuek harritu naute, ez dutelako hain harrera onik izan. Azken liburuak oso ondo ari dira zabaltzen (Foster Wallacerena, *Kristo irakiarra, Xala...*), batez ere irakurle-taldeetan.

Argitaletxe pertsonabakarra izate hori nola daramazu?

Neu arduratzen naiz denaz, bai. Hasieran, irakurgaiak bilatzea zen arazoa, azkenean neuk zer irakurtzen dudan horixe ateratzen dugulako. Beste gauza batzuk ere atera nahi nituzke. Batzuetan, beldurra ematen dit

nire gustuari bakarrik kasu egiteak. Batzuek kritika egiten didate liburuak tristeak direla eta, baina nik esaten diet ez direla denak bata bestearen atzetik irakurri behar. Nik, orain, liburuak aukeratu eta administrazio-lana (eskubideak, ISBNak, inprimategiak...) egiten dut. Diseinua La Personalitén egiten da; itzulpenak eta zuzenketak ere, kanpoan.

Webgunean diozunez, Pasazaiteren etxetxoak hiru oinarri dauka: euskara, itzultzailea eta kalitate oneko literatura. Zergatik euskara?

Ni galego-hiztuna naiz, eta badaukat hango hizkuntza-ingurunearen kontzientzia, eta hemengo, berdina ez den arren, parekatu egin daiteke gauza batzuetan. Banekien kultura-proiekturen bat abiaraziz gero Galizian galegoz egingo nuela eta hemen euskaraz.

Bigarren oinarria, itzultzailea. Pasazaiten entzute ona dauka lan-baldintzengatik. Nola hasi zinen itzultzaile bila?

Hasieran, asko kostatu zitzaidan, ez baine-kien nondik hasi. EIZIEren berri izan nuen, eta gogoan dut *Muskuiluak afaltzeko* atera nahi nuela lehena, Birgit Vanderbekerena, baina ez nuen aurkitzen zeinek itzuli alemanetik. Italieratik ikusi nuen Josu Zabaletak bazeukala Euskadi Sariren bat, eta horregatik... sariduna zenez... harixe eskatu nion *Hamar* itzultzeko, Andrej Longorena. Eta, Rosettan, Koro Navarro ezagutu nuen. Ainhua Irazustabarrenarengana ere EIZIEren bitartez iritsi nintzen, eta uste dut beraren aurreneko literatura-itzulpena zela, baina jendea oso pozik dago egin zuen lanarekin. Atzo ere galdetu zidaten ea eskuarki

eskarmentua lehenesten ote den itzultzailea hautatzean, baina nik ez daukat beldurrik gazteei ere eskaintzeko; batzuetan, izan liteke gogo handiagoa izatea gazteek. Danele Sarriugarteren lanarekin ere pozik dago jendea, eta lehendik ez zeukan itzulpen askorik eginda.

Nola zaintzen duzu itzultzailea?

Nik ikusten nuen itzultzaileak ez zirela inon agertzen, zegokien garrantzia eman behar zitzaie. Ez dakit zuen bekaitz naizelako ote den, hizkuntzak dakizkizuelako edo. Orduan, azalean, itzultzailearen izena jartzen dugu; haren biografia ere badakar liburuak, eta, bestalde, bideo txiki bat egiten dugu bakoitzarekin. Nik beti izan dut garbi hori: azalean agertu behar duela izenak. Ez dut uste idazlearen garrantzia gutxien duenik horrek. Liburua, noski, idazlearena da, baina zuei esker irakurtzen ditugu liburuak.

Ez luke harritzekoa izan behar, baina zuk kontratu bat eskaintzen diezu itzultzaileei. Araua izan behar luke, baina ez da hala.

Ez dakit araua den, baina nik uste gauzak horrela egin behar direla. Iturginaren faktura eduki nahi izaten dudan bezala, itzultzaileari ere kontratua egiten diot.

Zer hizkuntzatan irakurtzen duzu?

Galegoz, gaztelaniaz, ingelesez, portugesez.

Eta zer hizkuntzatatik hartzen dituzu Pasa-zaiterako ideiak?

Asko galegora itzultako lanetatik etorri ziren, lehenengoetatik, Rinocerongerren ildo editoriala gogoko nuelako orduan (orain, ez hainbeste). Eta, bestela, nik uste azke-

naldian gaztelaniara itzultakoetatik etorri direla ideia gehienak.

Badaukazu erreferentziako argialetxerik?

Bai, badauzkat gogoko batzuk, baina ez dut uste bat-bat datozenik gero argitaratzen dudanarekin. Orain, esaterako, Pálido fuego gustatzen zait asko. Bi-hiru urte dauzka argialetxeak, eta batik bat Ipar Amerikako literatura ateratzen du, *postmoa* eta hola, baina bostehun bat orrialdetik gorako liburuak izaten dira, eta hori ez dator bat Pasa-zaiteren irizpideekin.

Bestela, argitaratuko zenituzke?

Bai. Badauzka asko gustatzen zaizkidan idazleak, eta liburuak, baina orrialde kopuruak asko mugatzen nau, itzulpenaren eta inprimategiaren prezioetatik. Sexto piso ere gustatzen zait. Badira gustatzen zaizkidan beste liburu batzuk ere, baina XIX. mendekoak edo XX. mendearen hasierakoak dira, eta, beraz, ez dira literatura garaikidekoak, eta ezin atera. Ez dakit egunen batean Pasa-zaiteren filosofia hori aldatu beharko dudana. Beste era batera antolatu behar nuke dena.

Zure ustean, zer da kalitatezko literatura?

Ez da erraza erantzuten. Nik uste dena bilatzen dudala: bai kontagaia, bai kontamoldea.

Benetan gustatzen zaizkizu istorio tristeak, lehen esan duzunez?

Nik denetatik irakurtzen dut, baina gero bada onil edo iragazki bat, eta hortik pasatzen denak ez du erabat erakusten zer irakurtzen dudana. Ez dut uste tristezia bereziki estimutan dudanik. Badira, noski, oso onak

diren umorezko liburuak ere, baina, antza, halakorik aukeratu ez nik.

Eta juduenganako obsesio hori? Albahari, Keret, Ozick.

Literatura judu asko iristen zaigu. Estatu Batuetatik, Roth, Bellow... Alemaniatic, Txekiatik, Poloniatik, Frantziatic ere, XX. mendearen hasierakoak. Ez da zerbait bilatua.

Ez duzu inoiz pentsatu egile bat errepikaztea? Keret, esaterako.

Ez. Niri Keretekin zera gertatu zitzaidan: harritu nintzen zer gutxi saldu zen bere garaian. Harritu nintzen, gaztelaniaz ondo saltzen delako. Galegoz ere bai. Ingelesez ere salmenta onak ditu. Euskaraz, ordea, ez. Eta harrigarria zait, zinez.

Kristo irakiarra, ordea, giro eta umore berdintsukoa da, eta asko saldu da, ezta?

Bai, asko saldu da. Keret oso ezaguna da gure katalogoko beste autoreen aldean, Foster Wallacearekin batera, eta, halere, ez zen askorik saldu. Itzulpena ere ona da, Itziar Otegiarena. Ondo mugitu balitz, beharbada hautatuko nukeen Kereten beste kontakizun-libururen bat (baditu beste batzuk onak eta), baina, ikusitakoak ikusita, ez. Beharbada ez nioke horri kasu egin behar, eta autorearen alde egiten segitu, baina, bestalde, atsegin dut autore berriak ezagutaraztea.

Kontakizun-liburu asko argitaratzen duzu. Zergatik? Orrialde kopuruagatik?

Ez, kasu horretan ez da izaten erabakigarria orrialde kopurua. Kontakizunen zalea naiz, eta halako liburu asko irakurtzen ditut. Ez dute hain ondo funtzionatzen gero, salbues-

penak salbuespen. Oro har, eleberriek baino salmenta urriagoak izaten dituzte.

Eta begiratzen al duzu zer euskaratzen den beste argialetxeetan, liburuak aukeratu aurretik? Halako behar genuke euskaraz-edo...

Ez, ez ditut euskal kulturaren hutsuneak bete nahi. Hori ez da nire helburua. Batzuetan, esaten didate: «Hau badago gaztelaniaz». Baina, kontuan izanda zenbat nobedade dauden gaztelaniaz, ia ezinezkoa da gaztelaniaz argitaratuta ez dagoen liburu bat aurkitzea. Helburua ez da irakurle euskalduna oinarritzko literaturaz hornitzea. Horretarako, badago Literatura Unibertsala bilduma, esaterako. Meettok-ek Philip Roth argitaratu du, eta nik ere argitaratu nahi nukeen, baina ez hainbeste euskaraz egon behar duelako, baizik eta niri gustatzen zaidalako.

Blasim...

*Kristo irakiarra ez zegoen gaztelaniaz, ez, baina, euskaraz atera aurretioan, Blasimen beste bat argitaratu zuten gaztelaniaz. Lehenbizikoa zen gaztelaniaz. Hala ere, horrek ez ninduen akuilatu. Bai, bada erakusteko modu bat: «Aizu, bai, gaztelaniaz ez dagoen zerbait atera genezake». Baina ezin zara horretan tematu. Bestalde, hizkuntzen muga ere badago: zer jatorrizkotatik irakurtzen dudana. Ingelesez irakurri behar nuke, baina ingelesera oro har oso gutxi itzultzen da, gaztelaniarekin konparatuta. Asko itzultzen da gaztelaniara. *Muskuiluak afaltzeko*, kasurako, gaztelaniaz badago, baina ohar-kabeen pasatu zen, eta euskaraz ez (bere neurrian, jakina). *Hamar* ere, esaterako, ez*

dago gaztelaniaz, baina ezin dugu beti pensatu: atera dezagun gaztelaniaz ez dagoen zerbait.

Baten batek esan lezake: «A, euskaraz atera duzu liburu bat, baina nik irakurrita daukat lehendik gaztelaniaz». Irakurleak galtzen ote dituzun.

Bai, baina ez dut uste liburu asko gaztelaniaz ezagutu dituenik jendeak. Litekeena da asko irakurtzen duen batek, bai, gaztelaniaz irakurrita edukitzea, baina... Ezinezkoa da gaztelaniara itzultzen den guztira iristea. Foster Wallace, esaterako, oso ezaguna da, eta jendeak bai, esan dit ezagutzen zuela baina ez zuela liburu jakin hori irakurri. Gaztelaniarekin lehiari hasiz gero, zer ez dagoen argitaratuta huraxe ateratzeko, oso gogorra litzateke; ni ez nintzateke ailegatu. Alemanez, hungarieraz edo italieraz irakurtzen hasi behar nuke. Eta, halere, lantoki zaila litzateke.

Arazoak izan dituzu hizkuntza batzuetako itzultzaileak bilatzeko: hebreera, arabiera, serbo-kroaziera... Zubi-hizkuntzek balio kentzen al diote itzulpenari?

Nik uste ezetz. Albahariren kasuan, esaterako, Navarrok hiru-lau hizkuntza erabili zituen. Baimena eskatzen dut beti. Eta inoiz ez dut izan inongo arazorik. Sjón-en kasuan, esan zidaten ingelesezko itzulpena ona zela, eta, orduan, ingelesezkoa, gaztelaniazkoa (ez zen batere ona; orri batzuk ere falta zituen) eta danierazkoa erabili zituen Mendizabalek. Egile-eskubideak eskuratzean, beti eskatzen dut baimena, zuzeneko egiteko inor aurkitu ez dugula esanez, eta beti ulertu izan dute.

Zer harreman duzu itzulpenak argitaratzen dituzten beste argitaletxeekin?

Egia esanda, ez daukat batere. Ez neure kasa ibili nahi dudalako; baina, mundu horretako ez naizenez eta bizitzak tarterik uzten ez didanez... Meettok-en gauza batzuk gustatzen zaizkit, adibidez. DeLillo ere itzuli dute, eta asko gustatzen zait. Jim Thompson ere gustatzen zait, Igelakoa.

Nola ikusten duzu panorama? Orain, atzerriko literatura garaikidea ere hasi da gehixeago argitaratzen.

Bai, uste dut zerbait naturala dela. Galizian literaturan ere gertatzen zen: itzulpenak hutsuneak betetzera bideratzen ziren. Dena itzulia duten hizkuntza-sistemen parera iritsi beharra. Itzul ditzagun klasiko handiak, haien beharrea gaude eta. Sistema apur bat normalizatzea da kontua. Itzuliko dugu, baina literatura garaikidea.

Zure iritzian, ezagun al da Pasazaitte irakurle euskaldunen artean?

Ez, ez, eta harrizten nau. Inoiz gertatu zait euskaraz irakurtzen duen jendearekin suertatu eta haiek argitaletxea ez ezagutzea. Eta harrigarria da, euskaraz ez direlako hainbeste. Ez dakit zein den bidea ikusgaitasuna lortzeko. Edo gutxi hitz egiten ote den. Nik uste euskal idazleak askoz ere gehiago irakurtzen direla (Galizian ere gertatzen da). Ez dakit zergatik; lehen gutxiago itzultzen zelako edo itzulpena erakargarri suertatzen ez delako, jendeak ez dauka ohiturarik itzulpenak irakurtzeko. Ez da gertatzen bakarrik Pasazaitterekin. Seguruena, pertsona horrek ez zuen Meettok ere ezagutuko.

Ez duzu uste aurreiritzi horiek gaintzen ari direla? Irakurle-taldeetan, gero eta itzulpen gehiago irakurtzen da...

Irakurle-taldeen arduradunek, bai, ezagutzen dituzte halako argitaletxeak. Jakin nahi nuke, ordea, ea taldekideek ezagutzen ote dituzten itzulpenak plazaratzen dituzten argitaletxeak; Igela ezagutzen ote duten, esaterako, ibilbide luzea daukan arren.

Durangoko Azokara ez zara joaten.

Ez, ez, diru-kontuagatik. Hasieran, joatea pentsatu nuen, baina egunak eskatu behar nituzke, eta beste lanarekin ez litzateke erraza izango. Inoiz pentsatu izan dut, oporrak hartuta eta, baina atzera egin dut azkenean.

Goazen Galizia aldera. Zer parekotasun eta desberdintasun ikusten dituzu bi egoeren artean?

Alderik nabarmenena zera da: hemen, euskarazko hezkuntza-sistemak irakurleak sortzen ditu, eta, han, ez. Galegoa ia osorik baztertu da hezkuntzatik, arrazoï politikoengatik. Lehen belaunaldiak sortu dira etxean galegorik entzuten ez dutenak. Eta, jakina, ez da irakurlerik sortzen. Badira liburu jakin batzuk asko saltzen direnak, eskolara bideratuta daudelako, derrigorrezko irakurgaiak. Gero, adin batetik aurrera, «behartu gabe» irakurtzen dutenak gutxi dira. Horien batez besteko adina gero eta handiagoa da. Batzuek, hizkuntzaren kontzientzia dutenek, bai, irakurtzen dute, baina ez modu natural batean, konpromisoagatik baizik. Hemen, ordea, ez zait iruditzen hala denik.

Irakurtzen al da itzulpenik Galizian?

Nik uste gehiago irakurtzen dela jatorriz galegoz idatzitako literatura. Kritikarien

blogetan, gomendatuen zerrendetan, salduenen zerrendetan eta abarretan oso gutxi ageri dira itzulpenak, eta beti harritu izan nau eskasia horrek. Eta itzulpen batzuk oso onak dira, baina, halere, ez dakit zergatik, baina gutxi azaltzen dira. Ez da hainbeste salduenen zerrenda horietan, ezpada kritikari batek berak gomendatutakoen artean hain itzulpen gutxi azaltzea zait harrigarriena. Eta, gainera, haur- eta gazte-literatura nahasian ageri da zerrenda horietan, eta gainerako literaturari lekua kentzen zaio. Gainera, Galizian, oso literatura ona daukagu haur eta gazteentzat.

Ba al duzu interesik hango literatura hemen sustatzeko?

Bai, nahi nuke; baina, kontuan izanda urtean bi-hiru liburu argitaratzen ditugula, ez da erraza hango bat gailentzea. Liburu onena lehenetsi nahi dut, eta ez hainbeste nondik datorren. Iolanda Zuñigarena iruditu zitzaidan ondo sartzen zela gure ildoan: kontaktuzun laburrak, emakume bat, hau eta beste. Eta oso pozik nago emaitzarekin. Hala ere, galegozkoa izatea ez da erabakigarria. Bestalde, egia da gehiago itzultzen dela galegotik euskarara alderantziz baino. Kopuruak txikiak dira, haatik, bi noranzkoetan. Uste dut hemendik Galiziara ez dela begiratzen, ez literaturan, ez musikan, ez bestela.

Zer asmo daukazu etorkizunerako? Orain arte bezala segitu? Bilduma berriren bat?

Oraingo, bi bildumei eustea. Eta badira urte batzuk gauza bat darabildala buruan, baina ez dakit nola antolatu: harpidetza-sistema bat abian jartzea. Baina ez dut liburu kopuru bera argitaratzen urtero. Eta, orduan, harpidedunei esan behar nieke:

«Lasai, halako batean iritsiko dira liburuak». Urtean pare bat argitaratuta, aukera izango nuke oinarri ekonomiko bat izateko, salmenta kopuru bat berehalakoan bermatzeko. Argitaletxe txiki gehienek badaukate halako harpidetza-sistema bat. Horrela, bide

batez, jakin nezake zer prestutasun daukan jendeak, ea bat datorren ildo editorialarekin... Hala ere, atzera eragiten dit kontuak, iruditzen baitzait jendeak harpidetza gehiegi dauzkala. Egunaren arabera, garbiago edo ilunago ikusten dut kontua.

Resumen

Hace ya seis años que la editorial Pasazaitte irrumpió en nuestro pequeño mundo literario con la intención de «traficar» con literatura contemporánea traducida al euskera. Desde entonces, ha publicado doce libros traducidos. Interesados por el recorrido de la editorial, dos traductores han querido reunirse con su editor, Xabier Queiruga; por una parte, para conocer cómo surgió la idea de una editorial de estas características, y, por otra, para conversar sobre la literatura traducida: la situación en Galicia, la de aquí, las subvenciones, las políticas, los traductores, etc.

El lector encontrará en las palabras de Queiruga algo que en pocas ocasiones se encuentra: la mirada de alguien que, a pesar de su experiencia, todavía no ha perdido la capacidad de sorprender(se).

Résumé

Cela fait déjà six ans que la maison d'édition *Pasazaitte* fit son apparition dans notre petit monde littéraire, dans le but de « faire passer » en notre langue, la littérature contemporaine d'ailleurs. Depuis, elle a publié douze livres traduits en euskara. Intéressés par la trajectoire de cette maison d'édition, deux traducteurs ont voulu rencontrer son directeur, Xabier Queiruga, pour connaître de plus près les origines de cette entreprise, et s'entretenir avec lui de la littérature traduite : la situation en Galice, au Pays Basque, les subventions, les politiques, les traducteurs, etc.

Le lecteur découvrira dans les propos de Queiruga la vision d'une personne expérimentée qui, toutefois, n'a pas perdu la capacité de (se) surprendre.

Abstract

Six years ago the publishing house Pasazaitte burst onto the scene in our small literary world with the intention of “trafficking” in foreign contemporary literature translated into Basque. Since then, it has published a dozen books in translation. Interested in the history of this publishing house, two translators met with its editor, Xabier Queiruga; first, to find out where he got the idea of creating a publishing house of this type and second, to discuss literature in translation: the situation in Galicia and here, financial assistance, politics, translators, etc.

The reader will find in Queiruga's words something that is rarely found: the viewpoint of a person with experience, but who has not yet lost his capacity for surprise.